

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**263/2020 Foru Agindua, urriaren 30ekoa, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes-ek sustatutako honako proiektu honen interes publikoa deklaratzeko duena: "Carrascal 2 industrialdea" transformazio zentroaren eta "Oion" BTAko "Casablanca" aireko linearen 21. euskarriaren artean aire-lurpeko linea instalatzea, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean**

i-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk (Iberdrola Taldea) udalaren obra lizentzia eskatu dio Guardiako Udalari proiektu honetarako: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko linea, "Carrascal 2 Industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" TEAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzekoa, Lantziego eta Guardiako udalerrietan. Honetan datza: Linea elektriko misto bat, airekoa eta lurpekoa, hedatzean Lantziegoko udalerrian dagoen El Carrascal industrialdetik, ondoren El Carrascal aurkintza (Lantziego) zeharkatuz eta Guardiako udal barrutiko Malpica aurkintzan dagoen Casablanca 2 industrialdetik hurbil doan beste linea elektriko batekin lotuz, guztira 1.400 metroko luzerarekin gutxi gorabehera.

Guardiako Udalak espediente bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen osagai dira proiektu tekniko eta udaleko arkitektoak bidalitako txostena, zeinean adierazten baita lineak zeharkatzen dituen lurrak gehienbat "Nekazaritza intereseko zonak babesteko lurzoru urbanizaezin" moduan sailkatu daudela, eta haren hegoekialdeko muturrean, "Lehengoratu beharreko baso zonak babesteko lurzoru urbanizaezin" moduan. Bat etorritik udalerriko indarreko arau subsidiarioetan ezarritakoarekin, baimenduta dago onura publikoko eta interes sozialeko erabilera jartzea (112. eta 113. artikulua).

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espediente ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 13.1. artikuluan honako hau ezartzen du lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzetik babestutako landa egoeran dagoen lurzoruari dagokionez: "Salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira".

Lurzoru urbanizaezinean, sektorean aplikatu beharreko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikokotzat jotzen dituen hornigaiak, ekipoak eta jardunek baino ez dute lekua, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Gainera, foru aldundiak interes publikoko deklaratu behar izan ditu ebazpen bidez, hogeitau eguneko jendurereko izapidea bete ondoren.

Irailaren 14ko 208/2020 Foru Aginduaren bidez xedatu zen espedienteari hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea 20 egunez, agindu hori ALHAOn argitaratzen zenetik hasita. 2020ko irailaren 23ko ALHAOn (108. zenbakia) argitaratu zen agindua. Horretarako emandako epearen barruan ez da aurkeztu inolako alegaziorik.

Bigarrena. Proiektuaren interes publikoa deklaratzeko oinarria da Sektore Elektriokoaren abenduaren 26ko 24/2013 Legea, zeinak 1. artikuluan xedatzen baitu legearen xedea dela sektore hori arautzea, energia elektriokoaren hornidura bermatzeko eta hura kontsumitzaileen beharretara egokitzeko, segurtasunari, kalitateari, eraginkortasunari, objektibotasunari, gardentasunari eta kostu minimoari dagokienez. 2.2. artikulua jasotzen duenez, energia elektriokoaren hornidura interes ekonomiko orokorreko zerbitzu bat da; bestalde, 7. artikulua xedatzen du kontsumitzaile guztiak eskubidea izango dutela energia elektriokoaren garraio eta banaketa sareetarako sarbidea eta konexioa izateko Espainia osoan, lege horretan bertan ezarritako baldintzetan.

5. artikuluan xedatzen da hornidura elektriokoari loturiko jardueretarako azpiegitura propioak onura publikokotzat jotzen dituela lege horrek, eta sistema orokortzat hartuko direla; eta 54. artikulua, nahitaezko desjabetzearen ondorioei dagokienez, onura publikokotzat jotzen ditu energia elektrikoa sortu, garraiatu eta banatzeko instalazio elektriokoak, eta halakotzat hartzen ditu, orobat, arrazoi teknologikoen, ingurumen arrazoien edo energia eraginkortasunaren ondoriozko ordezteak edo aldaketak.

1.2. artikulua jasotzen duenez, energia elektriokoaren hornidurarako diren jardueren artean banaketarena dago. i-DE redes Eléctricas Inteligentes SAU (Iberdrola taldea) enpresa eskatzailea konpainia banatzailea da, eta, haren web orri ofizialean emandako informazioaren arabera, helburutzat du elektrizitatea bezeroarengana eramatea banaketa sareen bidez; horretarako, sare elektriokoaren mantentze lanez arduratzen da, sarearen plangintza eta garapena optimizatzen.

Horri dagokionez, 6.1.e) artikulua ezartzen duenez, banatzaileak merkataritza sozietateak (edo kontsumitzaileen kooperatibak) dira, eta eginkizuntzat dute energia elektrikoa banatzea eta energia kontsumo puntuetan kokatzera bideratutako banaketa instalazioak eraiki, mantendu eta erabiltzea, bai eta 40. artikuluan jasotzen diren funtzio guztiak ere. Azken manu horren 1.e) puntuan zehazten denez, banatzaileak arduratzen dira banaketa instalazioak handitzeaz, hornidura elektriokoaren eskari berriei erantzuteko beharrezkoa denean (...).

Horiek guztiak bat datoz aurkeztutako 4.479 zenbakiko proiektuaren xedearekin: 13,2 kV-ko zirkuitu sinpleko aire-lurpeko linea instalatzea, "Carrascal 2 industrialdea" transformazio zentroa eta "Oion" BTAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarria lotzeko, Lantziego eta Guardiako udalerrietan. Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. i-DE Redes Eléctricas Inteligentes-ek (Iberdrola taldea) sustatutako 4.479 zenbakiko proiektuaren interes publikoa deklaratzeko: "Carrascal 2 industrialdea" transformazio zentroaren eta "Oion" BTAko "Casablanca" 13,2 kV-ko aireko linearen 21. euskarriaren artean aire-lurpeko linea instalatzeko, Guardiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean, bat etorri Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik juzgatzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertze errekurtsioa jarri ahalko zaio, nahi izanez

gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsio ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 30a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*